

IRAILAK 21 | LARUNBATA | 2024

HERRITARREN XX. MARTXA OINEZKOEN PAUSORA

Urratsez urrats, elkarrekin zuen eskubideen alde



LEIOA
HERRI ZEBRADUNA

Urratsez urrats, elkarrekin zuen eskubideen alde!

HERRITARREN MARTXAK 20 urte bete ditu, zorionekoak gu!

Azken urteotan, irailero, Leioa gero eta leku atseginagoa, eskuragarriagoa eta osasungarriagoa bihurtzeko konpromisoa bultzatu eta berritu dugu, azken batean, pertsona guztientzat eta, bereziki, haurrentzat bizigarriagoa izan dadin. Eta haien laguntzarekin egin dugu, ulertuta hiri osasungarrienak haurrek oinez ibiltzeko eta jolasteko, kaleak betetzeko eta beste persona batzuekin batera hazteko aukera duten hiriak direla.


Mugikortasunaren Europako Astearen esparruan, Europako Batzordeak espazio publiko partekatua proposatu du landu beharreko gai gisa. Erronka horri erantzuteko, Leioako Bizibideak Talde Eragileak honako goiburu hau aukeratu du gure SEMerako: **“Urratsez urrats, elkarrekin zuen eskubideen alde”.**

Goiburu horren pean, helduekin partekatzean jarri dugu arreta, bereziki, gure seme-alabak hirian zehar, heldu baten beharrik gabe, etor eta joan daitezen bultzatzearen eta animatzearen garrantzia: eskola-bideak erabiliz, komunitate-bizitzaz gozatuz eta, erabakitze eta hausnarketa espazioetan parte hartuz.

Gurekin 20 urte hauek ospatzera gonbidatzen zaituztegu “Oinezkoen Pausura” martxa tradizionalan, haurrekin egiten dugun Haur Ibiltarien Topaketan (HIT) eta igandean, irailak 22, Nire Autorik Gabeko Eguna ospatzeko antolatuko ditugun jardueretan.

Iban Rodriguez Etxebarria




LEIOAKO ALKATEA





Nola partehartu?

MARTXA ZURE ESPERIENTZIARIK ONENA IZAN DADIN HONA HEMEN IRADOKIZUN BATZUK:


-  Ibiltzea mugitzeko modurik osasungarriena da: zuretzat eta zure inguru osoarentzat: sustatu eta praktikatu!
-  Ez ahaztu ezinbestekoa: oinetako onak -edo bateria kargatua gurpildun atulki elektrikoan bazoaz-, kantiplora bat urarekin -mapan aurki ditzakezue ibilbideko iturrietako batzuk-, fruitu lehorrak eta euritik edo eguzkitik babesteko zerbait beharrezkoa izanez gero. Gogoratu, euria egiten badu ere, planak aurrera jarraitzen duela.
-  Erabili iazko Martxaren amaieran oparitutako 20 urteak ospatzeko kamiseta beltza. Egon ez bazinen, batzuk geratzen dira oraindik -nahiz eta eskuragarri dagoen kopurua eta neurriak mugatuak izan-. Irteerara 10:00etatik 10:45era hurbil zaitezke, eta ordu hori igarota, ez dira kamiseta gehiago banatuko. Kamisetak pertsona bakoitzeko bat bakarrik emango dira, ezin dira beste pertsona batentzat erreserbatu edo hartu.



**Izan puntualak
eta iritsi
irteerara
denbora
nahikoarekin.**



Nola zaindu denon artean



Gogoratu “Leioako Oinezkoen Pausura” Herritarren Martxa **EZ DELA LASTERKETA BAT**: ekintza komunitarioa da. Hemen ez du inork irabazten. Aldiz, beharrezkoa izan daitekeen tarteetan, behar duten pertsoneri zure laguntza eskaintzen badiezu, asko irabazten dugu. Lasai ibili: paseatu, begiratu, sentitu eta besteei lagundu.

Lagundu ahal duzun horretan behar duen horri:

bere haur txikiaren kotxetxoari bultzaka dabilen guraso horri txandaren bat eginez, atsedean hartzera gelditu den horri lagunduz, indargabetua dagoenaren gogoia berotuz, ondoan dituzunak zainduz.

Martxa, zure bizilagun txikiak eta nagusienak ezagutzeko aukera paregabea da; haiekin



esperientziak, istorioak eta kezkek trukatzeko; gero eguneroko bizitzan ezagutu ahal izateko. Ez alferrik galdu aukera hau, bakarrik lehena izan nahi duzulako: lagundu eta lagunduta sentitu!

Zure parte hartzearekin Leioak bere erritmoa aldatu dezake: Martxan zenbat eta jende gehiagok parte hartu, are handiagoa izango da Leioari taupada markatzeko izango dugun gaitasuna: Oinezkoen pausura!

Martxak, komunikaziorako eta harremanetarako espazio bat eskaintzeaz gain, parte-hartzen ikasteko espazio osasungarri bat da: hitz egin, entzun eta partekatu, galdetu eta aditu: elkarrekin komunitateaz hitz egiteko aukera bat da.

Zalantzarik izanez gero, deitu edo idatzi Whatsapp/Telegram bat Leioako Udaleko Herrigune Herritarren Laborategiko zenbakira (martxa baino lehen edo martxan zehar): **627 50 38 98**.



XX. martxarako

joko-arauak



IRTEERA

11:00etan Sakoneta kiroldegitik izango da IRTEERA. Puntuala izan, orduan aterako gara eta.

Ibilaldia espaloietatik eta zebra bideetatik egingo dugu aukera dugun heinean, eta posible ez denean, mesedez, laguntza eskatu.

Garrantzitsua da garaiz iristea, 10: 00etatik 10:30era egotea gomendatzen dizugu.

Bidean zabiltzala, zebra zuri batzuk ikusiko dituzu lurreen margotuta. Euren buruak markatzen du Martxaren norabidea.

ELKARGUNEAK

Oinezko elkarguneetan txartel batzuk jaso behar ditugu. Gogoan izan, helmugara iritsi arte gorde egin behar dituzula.

Azken gauza bat: erabili #leioaoin hastag-a zure proposamenak igotzeko, zure iritziak emateko edo Twitter edo Instagram bidez martxari argazkiak ateratzeko. Adieraz iezaguzu!




leiodala



herrigune



leioaudala



herriguneleioa



leioa.udala



NIRE AUTORIK GABEKO EGUNA

IRAILAREN 22AN, Europa osoan, “**NIRE AUTORIK GABEKO EGUNA**” ospatzen da, mugikortasun iraunkorra sustatzeko eta, ahal den guztietan, ibilgailuaren erabilera murrizteko.

Igandean, hilak 22, ibilgailuen zirkulazioa etengo da 9: 00etatik 16:00etara, La Avanzada eta Elexalde etorbidearen alboetan. Gune horietan, Mugikortasunaren Europako Astearen eta Leioako Udalaren koordinaziotik antolatutako hainbat jarduera aurkituko dituzu, **kaleko espazioa oinezkoentzat berreskuratzeko helburuarekin**.

GUIXOTDES ERAKUSKETA

“Bizikletari eskainitako bilduma bat, gure gizartean hainbeste paper dituen asmakizun zoragarri hau. Puntu berdean aurkitutako bizikleta zaharrekin edo jende anitzek tailerrera eraman gaituztenekin egina dago. Gure lantegian, bizikleta zahar bat ibaira arrantzara joateko garabi bihurtzen da, edo hegan doan bitartean arrautza bat erruten duen txori arraro bat. Eta gurpil zahar pila batetik labirinto bat egiten dugu”.

KARTS y PARTYBIKE (6 pertsonako bizikleta zirkularra).



MUGIKORTASUNAREN EUROPAKO ASTEA

Irailaren 21ean eta 22an,
MUGIKORTASUNAREN ASTEA dela
eta, bi jarduera osasungarri egingo dira
jarduera fisikoa sustatzeko. Ez galdu!

Irailaren 21an, larunbata, **“OINEZKOEN
IBILALDIAREN”** ondoren, Errekalde
plaza hainbat **jarduera osasungarriekin**
beteko da.

Irailak 22. Egun honetan, eta “autorik
gabeko eguna” aprobeztatuz, **“UMEEN
BIZIKLETA FESTA”** ren jardunaldi berri
bat egingo dugu. Bizikleta martxa hori
Erandiotik eta Leioatik abiatuko da eta
Berangon amaituko da azkenengo jaiari.
Ibilbidean zehar, edozein adinetako
kirolariak bizikletaz sartu ahalko dira,
Leioako pasabidea 11:30ean gutxi
gorabehera izango delarik.





4
MANTENER LA BUENAS
DE LA VIDA SALUDABLE

3
MANTENER LA BUENAS
DE LA VIDA SALUDABLE

2
MANTENER LA BUENAS
DE LA VIDA SALUDABLE



ANTOLATZAILEA ORGANIZA



PARTEHARTZAILEAK PARTICIPAN



ERAKUNDEAK ENTIDADES



 **IRTEERA
SALIDA**

 **ITURRIA
FUENTE**

 **IBILBIDEA
RECORRIDO**

 **HELMUGA
LLEGADA**

**Itsatsi
hemen zure
pegatinak
eta erakutsi
kartilla
helmugan.**

**Pega aquí
tus pegatinas
y enseña la
cartilla en la
llegada.**

